

## **IRTEERA KULTURALA LIZARRERRIARA 2019/03/21**

Lizarrerriarako gure irteera eguraldi egokiarekin hasi genuen, kontuan hartuta egun horretan bertan eman geniola hasiera urtaro berriari: UDABERRIA. Gogo aldarte hori eta gure adiskide eta bidaide Ramónen azalpen zabal eta jakintsuak izan ditugu bidelagun.

Lehenengo bisita Torres del Ríon egin genuen, bertako Hilobi Santuaren eliza erromanikoan. Eliza harrigarria da, dorre oktagonala duelako, ganga kalifala eta, izenak adierazten duen bezala, hilobiratzeko gunea izan zelako Santiagoko bidean. Horrez gainera, Los Arcoseko Andre Mariaren eliza ezagutu genuen, eta bertako barrokoa.

Lizarrara iritsi ginen, aurretik hamaiketako hartuta, eta San Migel eliza eta bertako atari ederra bisitatu genuen; erromaniko beranteko multzo eskultorikoaz gozatzeko aukera izan genuen bertan. Asteko azoka arin ikusi ondoren, Monjardín jatetxean berri genituen indarrak.

Arratsaldean, bisita gidatua izan genuen Lizarrako Rúan, eraikin historikoak, bai zibilak bai erlijiosoak, ezagutzeko. Nabarmenena San Pedro de la Rúa eliza eta bertako klaustro erromanikoa izan zen, eta baita bertako zutabe korapilatuak ere, Silosko Santo Domingoko zutabeak gogorarazten dituztenak.

Bisita kultural bizia izan da, eta 18.30ean amaitu da. Santiagoko bideak nafar lurraldean izan duen eragina ezagutu eta hartaz gozatu ondoren Donostiara itzuli gara.